

Gezur txikiak



KOLDO ALDALUR
KAZETARIA

Ez dakit zuenean, baina nire inguruan, balore batzuk zalantzan jarri ezinak izan ohi dira: pertsona langilea izatea eta gezurrik ez esatea, esaterako. Jakina, euskaltzalea eta abertzalea izatea, baloreak baino gehiago azalean eta bihotzean tatuatutako ikurrak dira, Urola Erdiko herritarra izanik, meritu handirik gabekoak, egiari zor.

Pertsona langilea izatearena, bueno, zer esango dizuet. Baserria eta ume kuadrilla handia aurrera ateratzeko izanez gero, agian balekatzat jo beharrekoa izango da, ez dakit. Herriko fundizioan milaka ordu sartzea bada langile-langilea izatea, 4x4 auto handiena erosteko eta, bide batez, nagusiaren poltsikoak betetzeko, hori balorea baino gehiago babaloreena dela iruditzen zait.

Baina niri gezurrarenak piztu izan ohi dit arreta. Gezurra izan daiteke zuk diozuna, nahiz eta zu ziur izan egia esaten ari zarela, eta gezur borobila da esaten ari zarena egia ez dela badakizunean ahoa zabaltzerako.

Horrez gain, min egiteko gezurrak daude, deitoragarriak, eta gezur barkagarriak ere badira, gezur txikiak, alegia.

The Invention of Lying Ricky Gervaisen 2009ko pelikulan, herriko biztanle guztiek egia besterik ez zuten esaten, eta hura iskanbila hutsa zen. Eguna elkarri mokoka ematen zuten, auzokoak

Informazio karga
negatiboak nire baikor
eusteko sistema
immunologikoa kutsatu
izanaren ondorioa
izango da, baina
eskertuko nuke noizean
behin gezur txiki bat,
goxatutako albistea

hau edo bestea esan zuelako. Eta etxe-koekin askoz hobeto ez, jakina. Norbait ohartu zen arte gezurtxoak esanez, edo gutxienez egia guztiak gordin-gordin bota gabe, beraien mundua askoz ere atseginagoa zela eta harremanak askoz hobekak eta errazagoak.

Izan ere, intentzio txarreko gezurrak mina eta gorrotoa pizten duen bezala, gezur txikiak elkarrekin harmonian bizitzea ahalbidetzen digute. Esango nuke gezurtxo hauek, harremanetarako derrigorrezkoak izateaz gain, errespetua eta maitasuna ere adierazten dutela. Gure hezurrek elkarren aurka une oro era mingarrian ez jotzeko behar dugun olioaren funtzioa egiten dutela gure harremanetan gezur txikiak hain zuzen ere.

Eguneko egunkaria dut aurrean. Nire inguruak bezala, gezurra arbuaitzen duena. Zigarro papera baino meheagoa izan arren, jarri dizkioten traba guztiei sendotasunez aurka egiteko indarra erakutsi du. Komunikabide abertzalea. Euskaltzalea den edo ez erabakitzeak eztabaida pausatua eskatuko luke. Azaletik hasi, sail guztiak pasa –eskelak barne, jakina–, eta ikusiko ez ditudan gaueko ordu txikieta-ko pelikulen kartelera arte albiste beltzak nagusi. Bat txarra eta hurrengo txarragoa. Bizitzen ari garen garai ilunaren errealitatea da, bai, baina batzuetan ematen du orri bakoitza minaz betetako eremua dela, irakurtzen hasi orduko albistea gainera lehertuko zaizula, alegia.

Azken hilabeteetako informazio karga negatiboak nire baikor eusteko sistema immunologikoa kutsatu izanaren ondorioa izango da, baina eskertuko nuke noizean behin gezur txiki bat, goxatutako albistea, gezurra izan gabe, kalera ateratzeko gogoia piztuko diguna eskainiko balit egunkariak. Neure burua engainatzea dela? Bai, jakina. Zer uste duzue ba, zuek bakarrik saiatzen zaretela iruzur egiten bizitzari?


Kazetariok zerbaitetan abilak bagara, egia erdiak eta erdi egiak esaten gara. Egia balitz albiste onak txarrak adina saltzen duela, agian, gosea bera litzateke baina barre gehiago egingo genuke. ●



**ALDI BATERAKO
ERAKUSKETA**
Urtarrilaren 24a arte

**HERIOTZARAKO ERROMATAR
OHITURAK SORIAKO
TIERRAS ALTAS ESKUALDEAN.**

**EUSKARAREN AZTARNAK
ANTZINAKO EPIGRAFIAN.**



LABORATORIUM
Juan Irazabal pasealekua, 1.
BERGARA - 943 769 003
laboratorium.eus